

## HERNANI / Liburu sorta musu truk

**Hernaniko udal liburutegiak 400 liburu banatuko ditu bazkideen artean, leku nahikorik ez duelako.**

GURUTZE PIKABEA. Hernani .

Apalak beteta eta lekurik ez material berriarentzat. Berriak sartzeko, zaharrak kendu behar. Zer egin? Bota? Ez, bota ez, oparitu. Eleberriak, haurrentzako ipuinak, komikiak, bidaia gidak... Aukera zabala doan mahai gainean, irakurleak noiz hartu zain. Horixe bera da Hernaniko Saski-naski azoka, udal liburutegiko liburuen merkatu txikia.

Leku nahikorik ez, eta sobera dauden 400 liburu jarri dituzte herritarren eskura, liburutegiko bazkideek nahi dutena aukeratu eta nahi izanez gero etxera eraman dezaten. Asteartetik aurrera dago irekita Saski-naski, eta azaroaren 25ean itxiko dute. Liburutegiko erabiltzaile txartela erakustea nahikoa da liburua etxera dohainik eramateko.

Liburutegia txiki gelditu eta liburuen garbiketa egin beharra. Erabakia arrazoi hori tarteko hartu zutela dio Rakel Gonzalezek, Hernaniko udal liburutegiko arduradunak. Liburuak bazkideei ematea proposatu zioten Udalari, horrela arazoa konpondu eta bide batez urtero hartzen dituzten liburu berrientzat -1.000tik gora- txokoa egiteko. Eta Udalak onartu egin zuen. Hiru urtez egin dute liburuen merkatu hau jarraian, eta urtean bitan errepikatzen dute: udaberrian, Liburuaren Nazioar- teko Egunaren harira, eta udazkenean.

Liburutegian 12 urtetik gora egon eta oso zaharkituak gelditu badira, errepikatuak badira edota irakurtzen ez badira baztertzen ditugu liburuak. Irizpide horien arabera, liburu batzuk gordailuan uzten dituzte; gainerakoak, liburutegiko 6.584, bazkideren eskura.

Merkatutik ezer hartu gabe joatea zaila dela dio Adrian Ferreño liburutegiko erabiltzaileak. Irakurtzea oso gogoko omen du eta azken azokatik lau liburu eraman ditu etxera. Azkena, Memorias de una época difícil, Teresa Arozena idazlearena. Idazlea ezaguna dut eta, Donostialdeko kontuak kontatzen dituenek, hurbil egiten zait istorioa. Andoni Mateosek ere idazle beraren bertze eleberri bat aukeratu du: Por los ríos va el navío; itxura ona hartu dio. Saski-naskitik liburu bat hartzen duen lehen aldia da, ez baitu irakurtzeko ohitura handirik. Ekimen honekin, agian, gehiago irakurriko dut, dio Mateosek irribarrez.

Ferreñok eta Mateosek eleberriak aukeratu dituzte, irakurle gehienek bezala. Rakel Gonzalezen hitzetan, jendeak eleberrien alde egiten du, nabarmen. Adin eta mota guztietako irakurleentzako eskaintza egiten saiatu arren, narrazioak dira maiteenak. Bidaia gidak ere eramaten dituztela adierazi du Gonzalezek; nahiz eta berehala zaharkitu, jendeak berdin-berdin

eramaten omen ditu. Teknologiari eta politikari buruzko liburuek, berriz, ez dute arrakastarik.

PENA ERE BAI, BAINA POZIK. Herritarrak kontent daude ekimenarekin, batez ere irakurtzea gustuko duten liburutegiko erabiltzaileak. Baina niretzat al da liburua? Eta ez dut itzuli behar?. Gonzalezen arabera, horiek omen ziren Saski-naski azoka hasi zenean jendearen galderak, harrigarria egiten baitzitzaien etxera liburua doan eramatea. Baina pozik. Ferreñok eta Mateosek ere azoka aukera ezin hobea dela iritzi diote. Ferreñok, ordea, alde txarra ere topatu dio merkatuari: Oso zaharrak diren liburu asko ez dira gehiago argitaratuko eta, liburutegitik norbaitek hartzen baditu, irakurle asko geldituko dira liburu horiek irakurri ezinik. Horrek pena ematen diolako, sarritan, etxean irakurri eta atzera liburutegira eramaten omen ditu berriz liburuak.

Saski-naskirekin pozik herritarrak, baina merkaturak abian jarri zenetik ez dela liburu gehiago eramaten aitortu du Rakel Gonzalezek: Kopurua berdintsu mantendu da azken urteotan. Liburuzainak irakurzaletasuna sustatzen saiatzen diren arren, bertze joera bat antzeman du Gonzalezek iazko datuak aztertu ostean: ikus-entzunezko materialen aldeko apustu garbia. 2005ean gorantz egin zuten nabarmen ikus-entzunezkoek. Liburuen kopurua bikoiztu ere egin zuten.

Azoka amaitzean mahaian sobran gelditu diren liburuak otarrean sartuko dituzte eta, hortik hartzen ez badituzte, birziklatzera bidaliko dituzte. Hala ere, noiz edo noiz gaztelaniazko liburuak Kubara ere bidali izan dituzte.